

B

BARREN

Lasturren parekoa Idotorben

Jabi Mugertza
'El Ruso'

TOKIKOM



RUSO zezenak
ELGOIBAR



moma

Sarri berritzen dugu arropa bilduma!

Facebooken gaude!
Bila gaitzazu

Bisita gaitzazu!
Errosario kalea 11, behean



Elgoibarko Izarraren BATZAR OROKORRA bertan behera geratu da

Bailarako komunikazio-proiektuaren gaineko erabakiak hartzeko konbokatu zen uztailaren 4ko Batzar Orokorra, baina erabakitze-prozesuari lotutako eginbehar batzuk direla-eta, Batzar Orokorra atzeratzea erabaki dugu. Izango duzue gure berri.

Edozein argibidetakoz deitu 943 741 626 telefono-zenbakira, idatzi komunikazioa@elgoibarkoizarra.com helbidera edo pasa Ubitarte 4an daukagun bulegotik. Eskerik asko!

Hemen da Sortu!

Pasa den astean jakin genuen Sortuk bidea libre duela politika egin eta politikan eragiteko, legalitate espainiarraren barruan. Hamarkada bat joan zaigu ilegalizazio estrategiak bidea hasi zuenetik eta horrela bizi izan ditut hainbat ipuin, abentura eta kontatzeko modukoak ere ez diren hamaika egoera. Hala ere, egin dut nire ekarpen xumea herrigintzan. Egiten nuen lehenago eta egingo dut aurrerantzean ere.

Ilegalizazio estrategiak aukera politiko oso bat desagertaraztea zuen helburu, eta gaur, estrategia hori prestatu zein baliatu zutenek, ezin dute porrota ezkutatu. Udalean egoera kaxkarrean egindako lanak ere (aupa Asier, Iñaki eta Itziar), bere ekarpen txoa egin du gaur egungo indar bilketan, eta aldaketa, poliki-poliki, badator. Alta, dena ETA delako teoriak bestelako sufrimendua ekarri du gurera, nola ahaztu ekinbide politiko hutsagatik kartzelaratuak Juan Mari eta Imanol (18/98) edota Arnaldo bera (*Bateragune*). Baldintzapean aske dauden Joseba eta Ainara ere ezin ahaztu, eta bide batez, Sebasia ere besarkada bat. Azken finean, nire ibilerak, buruhauste eta denbora pasa batzuek aparte, isun pare bateko kontua baino ez dira izan, kartzelako egun bakar batekin alderatuta, ezer ere ez.

Aldaketaren olatura, Ezker Abertzalea etxeko lanak eginda dator, txanpa hartzeko prest. Prestatu ere egin ez direnak, gaur egungo krisi egoerara ekarri gaituzten berberak, edozer egiteko prest daude beraien zilbor zuloak handitzen jarraitzeko, baina krisitik irteteko badago murrizketetatik aparteko neurriak hartzerik. Tresnak behar ditugu, ordea. Bide horretan tresna izango da Sortu, eta Elgoibarko ezkertiar eta abertzale guztiak animatu nahi nituzke sorrera prozesuan parte hartzera, gazteak batez ere. Iraultzarik izango bada, gazteena izango da-eta. Eztabaidarako fitxak eskura daude parte hartu nahi duenarentzat, ezkerabertzaleaelgoibar@gmail.com-era idatzita eta bestela gerturatu lasai, lehen ere ez geunden kutsaturik eta!

Iñaki Bengoetxea



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Aldaketaren olatura, Ezker Abertzalea lanak eginda dator”



ESKERTZA

JOXEPA IRIONDO TXURRUKA

2012ko ekainaren 26an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

AMAIA URKIDI IRIONDO

2011ko uztailaren 4an hil zen. Senarra: Jose Luis Badiola. Semeak: Aitor eta Maria Armendariz eta Ion. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, astelehenean, uztailak 4, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Joan su arriskutsuak

Kezkatuta. Halaxe bizi izan genituen guraso askok San Joan suak joan zen larunbatean. Santa Ana kalearen amaieran egokitu zuten aurten San Joan suak egiteko gunea, eta benetan, ez zitzaigun batere egokia iruditu leku hori. Leku txikia zen, eta ume guztiak elkarren gainean pilatu ziren. Umeren bat noiz erreko ote zen beldurrez ere egon ginen. Ez al dago San Joan bezperako tradizio hori apur bat arautzerik? Elgoibar bezalako herri batean beste modu batean ospatu beharko litzateke San Joan gaua. Beste herri askotan herriko plazan piztan dute su handi bat eta haren bueltan biltzen dira herritarrak, musika eta festa giroan. Elgoibarren, zergatik ez? Azken unera arte umeek ez zekiten sua non egin behar zuten ere! Datorren urterako norbaitek honen ardura hartzea eskertuko genuke.

L.A. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Andres
Alberdi

Gogoratuko haiz, An-
gel, hilaren 9ko Ikas-
tolaren 50. urteu-
rreneko bazka-
riaz. Elkarren on-
doan egokitu
gintuan; baita due-
la urte batzuk ikasto-
lako irakasle-andereño
izandako beste hainbat
adiskide ere. Eta, nola ez!,
gure garaiko ikastolako pasadizo-
ak izan genitian hizpide eta txantxarako.

Orduko anekdota bi dituk segidakook, duela 35 bat urtekoak. Ba-
dakik garai hartan zeinen zaila izaten zen irakasle tituludunak eta eus-
kaldunak lortzea ikastolarako. Artean erabat euskaldundu gabeko birekin
gogoratzen nauk.

“Gure garaiko ikastolako pasadizoak izan genitian hizpide eta txantxarako”

Bat. Ikasturte-hasierako gurasoen bilera. Irakasle horietako bat eta ni,
5. mailako gurasoekin. Ondo joan zuan bilera. Handik, afaltzera joan gin-
tuan irakasle hori eta biok. Zuzendari-egitekoaz ezin ahaztuta, bilerari bu-
ruzko ohar bat egin behar izan nioan: “Aizu, primeran joan da bilera! Zorion-
ak! Dena dela, ohar bat egin behar dizut: euskaraz, *problema* esateko,
arazo da hitza, *ez azaro*”. Ez diat uste oharra aho-gozagarri hartu zuenik,
gorri-gorri jarrita honela erantzun baitzidan: “¡Y me dices que he estado
bien, si en vez de estar hablando de problemas he estado hablando del
tiempo!”.

Bi. Garaitsu hartan, auto berria erosi nian. Ikastolak orduan arkupeak
zizkian behe-solairuan, eta aparkaleku gisa erabiltzen genian. Autotik jaitsi
bezain pronto, andereño euskaldun berriak honela bota zidaan: “Andres,
¿barrabil berri bat ekarri duzu?”. Nik erantzun: “Barrabil bat ez, bi ditut”. Ha-
rridura eta ezustea harenak: “Bi?”. Ez nioan zehaztu estrenatuak ala estre-
natu gabeak ziren, baina argitu behar izan nioan, *auto* esateko, euskaraz
berebil zela terminoa; *barrabil*, *koskoiloa* zela. Ez nian betarik izan gorritu
zen ala ez ikusteko, saltaka ihesi joan zitzaidan-eta gajoa.



Anjel
Ugarteburu

Ondo gogoan jaukazat, Andres,
50.urteurrenako ospakizunak. Ederto pasatu
genduan, bai. Aspaldiko lankideekin giro onean
egoteko aukera aparta. Elkarrekin lanean egin-
dako urteek lotura sakona eragiten juek.

Orduan ahotan erabilitako kontuekin hator
gaurkoan eta nik ere hariari helduko jeutsat,
behingoz, sikira, irakurle apurren irribarrearen erru-
dun sentitzeko ere. Erru horren erantzukizuna hartzeko
prest najak. Txisteak politik izaten dozak, baina pasadizoak direne-
an, benetan gertatuak, beste grazia bat izaten juek.

Hiru. Institutuan zuzendari nintzela ia irristatu zitzaigun, letra ba-
ten gorabeheran kontrako esanahia adierazten duen mezu bat. Gu-
rasoei batzar baterako deialdia egin behar eta orriak prest jauzaz
mahai gainean, idazkariak arretaz prestatuta eta kopiak ere eginda.
Estalkietan sartzea falta. Azken irakurraldian ohartu nintzuan hasie-

“Txisteak politik izan dozak, baina pasadizoek beste grazia bat juek”

ran bertan ageri zen okerraz: *Guraso* agurgarriok jarri beharrean,
guraso egurgarriok idatzi zuela. Oharkabean, nik uste.

Lau. Hire bigarrenarekin uztartzeko modukoa dok oraingo hau.
Ebaluazio-bilera berezia genduan; ikasturteko azken saioa. Orduan
UBI (erderaz COU) izaten zuan unibertsitatean sartu aurretikoa eta
hura gaintzeko aurreko mailetan zintzilik (pendiente) lagatakoak
ere gaintu egin behar, aurrera egingo bazan. Kontua dok mutil ba-
tek bazituela gaintu gabeko bi gai. Hura ebaluatzen hasi eta hala
jiñok horren ardura zuen batzordeko batek:

-Zintzilik dituenak ez ditu oraindik aprobatu

-Nola leike, baina, 18 urterekin zintzilik dauzkanak aprobatu ba-
rik izatea? Barre egin behar.



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 behe
Pel. Glaso - Glasago kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 670

DEKORAZIOA

Karpo eta barmeko-estadua
Zolak ezartzen
Lantekua: egur, alumino, PVC
Pintura orokorra






PINTURAK
ETA
KONPONKETAK

ADARREKIN BERRIKONPONKETA

Pedro Pérez Beristain
Xibillon Kalea 2 soltoa 3
943 74 35 52 - 639 76 09 19

pisuor@euskaltel.net

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRITZAKETAK - ETXKO KONPONKETAK

CONCHI ROSA

GIZAKI ZURRUNAREN GAIKOTASUNA
DUEN ELGOIBARTARRA

**“Pertsona gisa
har gaitzatela
nahi dut”**

80ko hamarkadaren hasieran, Estatu Batuetan aipatu ziren lehen aldiz gaixotasun umezurtzak. Hasiera batean izen hori eman bazitzaien ere, berehala hartu zuten gaur egungo izena: gaixotasun arraroak. Europako Batasunak hamar mila biztanletik bosti baino gutxiagori erasaten dien gaixotasuna jotzen du arrarotzat. Gaur egun zazpi mila gaixotasun arraro baino gehiago daude, eta munduko biztanleen %7ri eragiten diete. Horietako % 80 baino gehiago jatorriz genetikoak dira, eta gehienak umetan agertzen dira, baina ez denak. Horietako bat da Conchi Rosa elgoibartarrak duena. 43 urte ditu, eta orain dela zortzi urte Gizaki Zurrunaren Gaixotasuna diagnostikatu zioten. Helduaroan agertzen da gaixotasun hau eta gorputzeko atalak zurruntzen ditu. Alemaniako mediku batek detektatu zuen gaixotasuna, baina oraindik ez dute gaitzaren jatorria zehaztu. Badirudi gaixotasun autoimmunea dela, hau da, gorputzak berak sortzen duela bere organismoan dituen hainbat elementuren kontra. Hego Euskal Herrian eta Espainian 30 lagunek dute gaixotasun hori, eta horietako bat da Conchi Rosa.



Gizaki Zurrunaren Gaixotasuna duzu. Kontaiguzu zer den gaixotasun hori.

Gaixotasun neurologikoa da, eta gorputzeko atal guztiei eragiten die. Poliki-poliki mugikortasuna galtzen da, erabat gelditu arte. Pertsona bakoitzari modu diferentean eragiten dio, baina denok paraplegiko bukatuko dugu. Gaixotasun mingarria da oso. Botika asko hartzen ditut egunero, eta botika horiei esker mugitzea lortzen dut, baina min handia izaten dut.

Noiztik daukazu gaixotasun hori?

Orain dela zortzi urte detektatu zidaten. Zango bat mugitu ezinda geratu nintzen. Kalanbre gogor bat igarri nuen, eta pasatuko zela pentsatu nuen, baina gero okerrera egin zuen. Zangoa zurrun geratu zitzaidan, une batetik bestera. Sendagilearengana joan nintzen, eta traumatologoarengana bidali ninduten. Proba pila bat egin zizkidaten, baina ez zuten aurkitzen nire gaixotasunaren arrazoia. Lau urte behar izan zituzten zer neukan jakiteko.

“Gaixotasun arraroak ez dira ikertzen, eta nire ustez, gehiago egin beharko litzateke”

Lau urtez ibili zinen medikuetan, eta ez zituzten esaten zer zeneukan. Nola bizi izan zenuen egoera hura?

Oso gaizki. Proba pila bat egiten zizkidaten, baina ez neukala ezer esaten zidaten. Gaitza etorri zen bezala joango zela esan zidaten, baina ni gero eta okerrago nengoen. Gaixotasun psikologikoa neukala ere esan zidaten, eta neuk sortzen niola zurruntasun hori nire gorputzari. Sinistu ere egin nuen, eta psikologoarengana joaten hasi nintzen. Hark egin zidan lehen diagnosis, eta psikiatragangana bidali ninduen, pertsona depresibo-suizida nintzela esanez. Inork ez ninduen ulertzen, eta ni neu ere zoraturata nengoela pentsatzera iritsi nintzen. Nire buruaz beste egitea ere pasatu zitzaidan burutik.

Nola konturatu ziren Gizaki Zurrunaren Gaixotasuna zeneukala?

Milaka proba egin ondoren, eta ezer ez neukala esan zidatenez, Donostiako Ospitalera bidaltzeko eskatu nien, hango sendagileen iritzia ere jakin nahi nuelako. Ez zidaten kasurik egin, eta ez ninduten serio hartu. Halako batean, traumatologo berri batek ikusi ninduen Mendaroko Ospitalean, eta hura konturatu zen nire gaitza burmunezkoa zela. Neurologoarengana bidali ninduen, eta hark esan zidan gaixotasun arraroa edo genetikoa nuela. Hainbat proba egin ondoren, gaitz genetikoa baztertu eta Gizaki Zurrunaren Gaixotasuna nuela esan zidan. Espainian 30 lagunek daukagu gaixotasun hori.

Zer sentitu zenuen gaixotasun arraro bat zeneukala jakitean?

Hasieran lasaitu egin nintzen, zer neukan esan zidatelako. Baina bestetik, gogorra da gaixotasun arraro batekin bizitzea. Ez dauka sendabiderik, eta hori gogorra da. Egunero hamabost pilula hartzen ditut mina arintzeko, baina ez naiz sendatuko. Medikuek eurek ere ez dakite nire gaixotasunak nola egingo duen aurrera. Zurrun geratuko naizela bakarrik dakit, baina noiz izango den ez dakit. Gaixotasuna nahiko aurrerata daukat, eta uste baino azkarrago izango delakoan nago. Asko jota 55 urte hartuko ditudala iruditzen zait, baina ez diot heriotzari beldurrik. Pertsona moduan har gaitzatela eskatzen dut. Gaixotasun arraroak dauzkagunak ere pertsonak gara, eta hala xe har gaitzatela nahi dut.

Zure ingurukoek nola bizi dute hau guztia?

Oso gaizki, amak bereziki. Amak oraindik itxaropena dauka, eta uste du sendagileren bat agertuko dela gaixotasun hau sendatzeko, baina nik argi daukat horrelakorik ez dela gertatuko. Gaixotasun honen eraginez, ez daukat defentsarik eta minbizia edukitzeko aukerak ere handiagoak dira. Beraz, badakit, modu batean edo bestean amaituko dudala.

Gaixotasun arraroak behar beste ikertzen direla uste duzu?

Ez, ez dira ikertzen; eta nire ustez gehiago egin beharko litzateke. Gizaki Zurrunaren Gaixotasuna Alemaniako mediku batek detektatu zuen lehenengoz, baina ez dago gaixotasunean espezialistarik. 30 laguni bakarrik eragiten dion gaixotasun batean inbertitzea ez da errentagarria, baina gu ere pertsonak gara. Londresen ikerke-

tak egiten ari direla entzun dut, baina ez dakit gauza askorik. Minbizia edo Alzheimer merra ikertu den bezala, gurekin ere gehiago egin daitekeela iruditzen zait.

“Erabat zurrun geratuko naizela badakit, baina ez dakit noiz izango den”

Eta, nolako da zure eguneroko bizimoduak?

Lehen etxeak garbitzen edo umeak zaintzen lan egiten nuen, eta neu arduratzen nintzen nire gurasoez ere bai. Orain alde-rantziz da, beraiek zaintzen naute ni. Gaixotasunaren eraginez, ezin dut lanik egin. Minusbaliagatiko pentsio txiki bat jasotzen dut, baina hori ez da bizitzeko nahikoa. 600 euroko laguntzarekin bizitzea oso zaila da. Nire bizi-kalitatea hobetzeko minusbaliatuentzako egokitutako etxebizitza bat beharko nuke, herri erdigunean. Gaur egun Sigman bizi naiz, igogailurik gabeko etxe batean, eta kalera irtetea oso zaila egiten zait. Udaletxean eta Eusko Jaurlaritzan egin dut eskaera, baina ez dut ezer lortu. Gurasoen etxea saldu eta beste bat erosteko esaten digute, baina hori ez da nire etxea; gurasoena da. Bizitza ez da justua, eta injustziak ikusten ditudanean sutan jartzen naiz. Beste batzuei erraz asko ematen dizkiete laguntzak, eta niri ez didate ezer ematen.

Zerk ematen dizu aurrera egiteko indarra?

Nire izakera horrelakoxea da. Gaizki egon arren, gurasoei eta etxekoei laguntzen saiatzen naiz beti. Umoreko pertsona naiz, eta horri esker egiten dut aurrera. Gehienetan alai egoten ahalegintzen naiz, eta jende askok uste du ez nagoela horren gaizki. Ibiltzera irteteak eta eguzkia hartzeak izugarri ondo egiten dit. Neguan oso gaizki pasatzen dut, baina udan apur bat indarberritzen naiz.

King-Kong tabernak irabazi du Elgoibarko pintxo lehiaketa

Herritarren saria Viento Sur gastrotekak jaso du

King-Kong tabernak irabazi du epaimahaiaren saria, Elgoibarko Udalak antolatutako pintxo lehiaketan. Aurten 21 tabernak hartu dute parte lehiaketan, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, epaimahaiak “lan zaila” izan du irabazlea aukeratzeko orduan, pintxoak “maila handikoak” izan direlako. Herritarrek, bestalde, 9.121 boto eman dituzte, eta Viento Sur gastrotekak jaso du puntuazio altuena. Hirugarren saria ez dute banatu, inork ez dituelako Elgoibarko baserrietako sasoiko produktuak soilik erabili pintxo egiteko.

Balorazio positiboa

Pintxo lehiaketaren balorazio oso positiboa egin du Udalak. Ostalaritza sektorea sustatzeaz gain, sektore horretan euskararen erabilera sustatzea ere bada lehiaketaren helburua, eta antolatzaileen ustez, bi helburu horiek bete dira, pintxo lehiaketak iazkoak baino arrakasta handiagoa izan duelako. Herritarren parte-hartzea ‘nabarmena’ izan da, eta batez beste, 650 pintxo inguru saldu



ditu taberna bakoitzak. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete parte hartzaile guztiei.

Taupada antzerki taldeak jarriko du txosna bihar, azken zapatuko ferian

Bihar egingo dute ekaineko azken zapatuko feria, 9:00etatik aurrera. Kalebarren plazan Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da, eta 10:00etatik aurrera, Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin eginiko pintxoak dastatu ahal izango dira. Taupada antzerki taldeak hartuko du oraingoan txosna, eta gisatua eta entsaladilla errusiar pintxoak jarriko dituzte salgai. Horrez gain, errifak jarriko dituzte salgai, eta saria sorpresa izango dela aurreratu dute. Sari banaketa, 14:00etan egingo dute.

Bestalde, ganadu erakusketa egingo dute ganaduzaleek Aita Agirre plazan, eta Kale Kantariek ohiko kantaldia egingo dute, 12:00etatik aurrera.

Emakume etorkinei herrian bertakotzen laguntzeko egitasmoa jarri du martxan Zerikasik



Emakume etorkinen talde batekin lanean dihardu Zerikasik (Debarrenako formakuntzaren Bitartekotza Zerbitzua), eta haien beharrak aztertu ostean, hemengo kulturen bertakotzen laguntzeko egitasmoa jarri du martxan. Emakume talde honek gaztelania praktikatzeko beharra azaldu zuen, eta lan horretan laguntzeko bolondresak bilatzeari ekin zion Zerikasik. Lau emakume elgoibartar agertu dira hartueman horretan parte hartzeko prest, beraz, uztailearen bukaerara arte, asteazkenero, arratsaldeko 17:00etatik 18:30ak arte batuko dira, gaztelania praktikatzen eta hemengo kultura ezagutzeko.

Izena **Javier Nuñez**



Borja Semper Gipuzkoako PPko presidente hautatu zuten berriro joan zen zapatuan alderdi popularrak Donostian egin zuen kongresuan, eta Semperrek bere taldean sartu du Javier Nuñez Elgoibarko PPko zinegotzia. Industria eta Ekonomia Sustapenerako Gipuzkoako PPren idazkari izendatu dute Nuñez.

Izena **DYA**

Sorospenari eta lehen laguntzari buruzko ikastaroa hasiko du uztailaren 11n Gipuzkoako DYAK, Eibarren. Bi asteko ikastaroa izango da, hilaren 11n hasi eta 24ra artekoa, eta astelehenetik barixakura, egunean bi orduko eskolak emango dituzte. Antolatzaileek jakinarazi dute ikasle kopuru mugatuko klaseak izango direla eta matrikulak ehun euro balio dituela. DYAren Eibarko ordezkartzan emango dute ikastaroa, Pagei kaleko bosgarren zenbakian.

Arnaldo Otegiren aldeko erretratu, egunean

Uztailaren 6an Arnaldo Otegiaren urtebetetze eguna dela-eta, Arnaldo askatu, politika askatu plataformak taldeko argazkia aterako du egunean, Kalegoen plazan. Hitzordua 19:00etan jarri dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Enpresa txiki eta berriei zuzendutako jardunaldiak

Kudeaketaren gaineko doako jardunaldiak antolatu ditu Debege-sak, enpresa txiki eta sortu berrientzako. Uztailaren 4an, 15:00etan, *Fiskalitatea eta forma juridikoak* izenburuko ikastaroa eskainiko dute Ermuko Torrealday Aholkularitza enpresakoek. Hilaren 5ean, berriz, 15:00etatik 17:00etara, *Enpresa diagnostikoa: errealitatea ezagutu eta ikasi hobetzen* ikastaroa eskainiko du Eibarko EGAZ enpresako aholkulari Ibon Muguruzak. Informazio gehiagorako: 943 820 110

Irudia **Atxutxiamaikaren udalekuak**



288 ume ari dira Atxutxiamaikaren udalekuetan parte hartzen, "inoiz baino gehiago". Udaleku irekietan 204 ume biltzen dira egunero Herri Eskolan, 37 hezitzaileekin. Uztailaren 27ra arte, jolastuz eta gozatuz pasatuko dituzte goizak neska-mutil horiek.

IDOTORBEKO PLAZA



San Pedro jaia ospatuko dituzte asteburuan Idotorben, eta egitarauaren barruan bada berrikuntza bat. Zapatuan, 'El Ruso' ganadutegiko zezentxoak eta poniak aterako dituzte umeentzako, bolatoki ostean eraiki duten plaza itxurako itxituran. Hori aitzakiatzat hartuta, Jabi Mugertza *El Rusorekin* bildu da BARREN.

Ainara Argoitia

San Fermin egunez egin zuen kaletik baserrirako saltoa Jabi Mugertzak orain hamabi urte, 24 urte zituela. Egun adierazgarria, bere bizitzak gerora hartuko zuen bidea aintzat hartuta. Kaletarra da jaiotzez, Errosario kaleko Rusonekuen ondorengoa, baina Aiastian bizi da gaur egun, ganaduz inguratuta. Umeumetatik argi zeukan baserrian bizi nahi zuela, eta Aiastiera iritsi eta gutxira, Betizu arrazako bigantxak hazteari ekin zion, oke-latarako lehenengo eta jai eta ospakizunetan alokatzeko gero. Familiaren ezizena erabili zuen orduan ganadutegia martxan jartzeko: *El Ruso*. Orain, Lasturko ereduari jarraituz, zezentxoak eta poniak ateratzeko itxitura bat eraiki du Idotorbeko bolatoki ostean. Elkarriketan aitortu du ez daukara

San Pedro jatetxearekin batera hasi du proiektu berria 'El Rusok'

erraza mundu horretan lekua egiten, baina ez dauka saiatu barik gelditzeko asmorik.

Baserrian bertan hartu gaitu Jabi Mugertzak, Aiastiako Makibar etxean. Eguerdia da, eta itzaletara eginda daude zezentxoak. Kanpoko itxituran, urtebete bueltako ganadu buruak daude, eta kortan, gaztetxoagoak, bost-sei hilabetekoak. Tartean bada begirik

kentzen ez digun urtebete bueltako Betizu bat ere. Hesi batek banatzen gaitu. "Apur bat estutuz gero, erraz salto egingo luke", ohar-tarazi du Jabik. Egin du salto egiteko keinua ere. "Betizuak ez horrenbeste, baina atzeko txahal horiek, mestizoak, odol berokoak dira, biziak. Betizuen aldean azkar egiten dute joter horiek, eta horregatik egokiak dira plazan ikuskizuna emateko". Eta hain justu ere, horixe dauka buruan Jabik, plazan ikuskizuna ematea. Ezkondu aurreko agurretarako, koadrila bazkaritarako eta bestelako ospakizunetarako aukera paregabea direla uste du. Urtebetez azpiko zezentxoak botako ditu Idotorbeko plazara, 60 kiloren bueltakoak, baina poniak eta ganadu zaharragoak ere baditu aukeran. "Jendeak eskatzen duenera moldatuko gara. Idotorben txahal txikiekin

ibiliko gara, baina herriz herriko jaietan ere ibiltzen gara, ganadu handiagoeekin”, zehaztu du.

San Pedro jatetxearekin elkarlanean hasi du proiektu berri hau Jabik, Idotorben, eta hala, zezentxoan aurrean euren abilezia erakutsi nahi dutenek bi bide dituzte *El Rusorekin* harremanetan jartzeko: zuzenean berari deitu edo idatzita (626 343 116 edota *ganaderiaelruso@gmail.com*) edo San Pedro jatetxera deituta (943 740 010). Zapatukoa, baina, aparteko zerbait izango da, San Pedro jaietako egitarauaren barruan antolatu dutelako.

Ume-umetako zaletasuna

Agustin Mugertza Aiastiako zezen zalearen eskutik sartu zen Jabi, hein handi batean, zezenen munduan. Sokamuturrean-eta ibili izan zen (eta ibiltzen da gaur egun ere) Agustini laguntzen, eta gustukua zuen zezenen mundu hori. Hala, kaletik baserrira joan zenean, hiru larra-behi erosi zizkion Agustini, “etxe buelta garbi mantentzeko”, eta poliki-



poliki barruraino sartu zitzaion harra. “Benenoa sartzen da odolean, eta akaboli”, bota du. Ez du argitu gaur zenbat abelburu dituen, baina badira batzuk. Urtebete bueltako txahalak, amarengandik apartatu berriak, eta pare bat urteko bigantxa batzuk ditu etxe bueltan, eta ganadu handiak, larra-behiak eta idiskoak, Lasturren ditu, mendian.

Betizu arrazakoak dira Jabik etxe inguruan dituen abelburuetako asko, Euskal Herriko basa-behi arrazakoak alegia. Eta ez da kasualitatea. “Betizua hemen bertako arraza da, eta galtzeko arriskuan zegoen. Horrexegatik promesa egin nuen, bizi nintzen artean, behintzat, ez zirela galduko”, adierazi du horren harira. Plazan ateratzeko ez ezik, okelatarako ere hazten ditu ganaduak. “Etxerako gehienbat, baina beti izaten da kapritxosoren bat, eta, tarteka, kanpora ere saldu dut. Dena den, Betizuaren okelak ez dauka estimazio larregirik, eta ez txarra delako el. Okela oso ona da, grasa gutxikoa, baina diruak agintzen du hemen”. Betizua ez da errenta

garia okela produkzioarako.

Antzina, mendian ibiltzen ziren betizuak, libre, eta urtean behin-edo harrapatu egiten zituzten, txahalak apartatu eta arrak kapatzeko. Okelatarako eta herriko jaietan egiten ziren sokamutur, zekorketa eta zezenketetarako ere erabiltzen ziren sasoi batean. “Lehen, familien mantenturako hazten ziren, baina gaur egun, diruari bakarrik erreparatzen zaio; dirua da dena, eta jakina, harakinek-eta nahiago dituzte limousine arrazako behiak, okela gehiago dutelako. Ganadua erosi, hil... gastu berbera suposatzen die, eta okela gehiago lortzen dute saltzeko”. Prezioak ere “hondoa jota” daudela dio, eta baserritarrentzat eurentzat ere ez dela batere errentagarria. “Zaila dago baserritik bizitzea”. Hala, Danobat enpresan egiten duen lanarekin uztartzen ditu Mugertzak baserriko lanak, eta horrexegatik, beharbada, erabaki du zezenen munduan bidea urratzen saiatzea. Zereginik ez zaio falta.



SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

29 BARIKAKUA

11:00 Prozesioa eta meza nagusia

Ondoren, hamaiketakoa

12:30 Pilota partidak

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria

21:00 Lagunarteko afaria

23:00 Mus txapelketa

30 ZAPATUA

16:30 Umeentzako jolasak eta zezentxoak

17:00 Bolo txapelketa

18:00 Nagusientzako jolasak

20:00 Triki kalejira

21:00 Lagunarteko afaria

22:30 Izer, Alabier eta Lutxurdixorekin gaupasa

Goizaldean, txokolatada

1 DOMEKA

10:30 Meza

Ondoren, Txalaparta, Ttakun bikotearekin eta euskal dantzak, Haritz dantza taldearekin.

17:30 Idi demak





Zebrabideetan aldapatxoak falta dira: “Udal agintariek hitz potoloak erabiltzen dituzte sarri, eta ahoa betetzen zaie irisgarritasuna edo Elgoibar Berdea bezalako hitzekin, baina, Elgoibarren irisgarritasun arazoak ditugu. Zebrabideetan aldapatxoak falta dira, eta, gurpildun aulkian edota umeen autoarekin ibiltzea ez da batere eroso. Urazandin, esate baterako, espalo handi bat igo eta jaitsi behar izaten dugu zebrabidera irteteko. Eskertuko genuke zebrabide guztiak egokituko balituzte”.



Pista Beltzaren bukaeran dauden lorontziak traba egiten dute: “Pista Beltzaren amaieran lorontzi batzuk jarri dituzte autoak ez pasatzeko eta handik aurrera aparkatu ez dezaten. Ez dakit zergatik ezin den ingurune horretan aparkatu, baina arrazoia dena dela ere, lorontzi horiek traba handia egiten dute. Gidari askok hortxe hartzen dugu buelta, eta atzera egiterakoan lorontziak noiz jo beldurrez egoten gara. Bizpahiru metro mugituta konpondu daiteke gure arazoa, eta autoek ez aparkatzeko funtzioa berdin-berdin beteko lukete”.



Mendaron, Azpilgoetako eliza parean aparkatzen du jendeak: “Luzaroan egon gara Azpilgoetako eliza parean aparkatzea debekatzen zuten seinaleen zain, baina azkenean Udalak margotu ditu marra horiak. Hala ere, hainbat herritarrek ez diote seinale horri jaramonik egiten, eta debekatuta egon arren, hor aparkatzen dute. Bide hori bi norantzakoa da, eta hor aparkatzen duten auto horiek traba handia egiten dute. Gutxi batzuen erosotasuna, herritar askoretzako traba da, beraz, eskatu nahi diet bizilagun horiei ez daitezela berekoiak izan, eta seinaleak errespetatu dituztela. Ingurune horretatik hogeit metroa aparkaleku handi bat dago, eta hori erabiltzeko eskatzen diet. Mila eske”.



Kalamua inguruan zezenak aske dabilta: “Kalamuara joan nintzen joan zen astean, eta sekulako sustoa hartu nuen! Zezenak aske zeuden zelaian, eta oso arrisksua iruditzi zitzaidan. Baserritarrei eskatuko nieke, mesedez, horrelakoak zaintzeko”.



Eskerrik asko ‘Baratzean zerotik nola hasi’ ikastaroa antolatu dutenei: “Eskerrik asko Mendaroko Udalari, Eneko Ulazia zinegotziari, EHNEko Itziar eta Migeli eta Altzola Berazetako Iñaki eta Paulari, *Baratzean zerotik nola hasi* ikastaroa antolatu duzuelako. Parte hartu dugunokk, debalde, bizitzako ikasgai garrantzitsu bat ikasi dugu: gure barazkiak nola landatu eta zaindu. Ikastaro oso interesgarria eta aberasgarria izan da, eta ikasleok oso-oso gustura egon gara. Ea horrelako ekimen politak egiteko aukera gehiago dagoen aurrerantzean ere. Eskerrik asko, eta ea ikasitakoak uzta ematen duen!”.

Eskerrik asko Pilar Gil eta Luzia Etxabe irakasleei: “Instititutuko DBH4ko ikasleen partez, eskerrik asko bihotz-bihotzez Pilar Gil eta Luzia Etxabe irakasleei, ikasbidaia zoragarri honengatik. Beti gordeko dugu oroimenean!”.



ATZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO (1990-2010)

Aurreak erakusten duelako atzeak zelan dantzatu

Elgoibarko Izarrak hogeitun urtean egindako lana jaso eta baloratu du. 43 lagun eta hamazazpi eragile-erakunderen iritzi eta ekarpenekin osatu da dokumentua.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek 1990 eta 2010 urteen artean egindako lana jaso eta baloratu du. 1990ean ekin zion elkarteak bigarren etapari, eta, harrezkero, hamaika ekintza, programa eta proiektu prestatu eta martxan jarri ditu. Baina, zer lortu du? Elgoibar euskaldunagoa izateko ahaleginean, zer irabazi dugu Elgoibarko Izarrak egindako lanari esker? Galdera pisutsuak dira. Erantzunak, berriz, ez dira errazak, baina saiatu gara argia topatzen.

Lan hau egiteko, atzera begira jarri da elkarteak. Lepoari buelta eman eta orain arte egindako bideari erreparatu diogu. Baina, kontuz, lanaren benetako arrazoia etorkizunean bilatu behar dugu. Atzera begira jarri gara, bai, baina etorkizuna ikusteko helburuarekin. Izan ere, esaera zaharrak dioen moduan, "aurreak erakusten du atzeak zelan dantzatu".

Anjel Lertxundi idazleak behin esan zuen moduan, euskaletan geldiuneak beharrezkoak dira. Egitea eta jardutea ondo dago, baina, noizean behin, dena geratu eta hausnartzea komeni da. Elgoibarko Izarraren trenea ez da geratu, baina denbora asko hartu dugu lan hau egiteko; ia bi urteko lana izan da. Lana amaituta dago, eta orain lan horretan jasotakoa zabaltzeari ekin diogu. Elgoibarko Izarrako bazkideek eta herritarrek Elgoibarko Izarrak 1990tik 2010era zer egin duen ezagutzeko da gehigarri honen helburu nagusia. Bertan, besteak beste, elkarteak noiz eta zergatik sortu zen ikusiko dugu, eta lehen etapako proiektuak erreparatu ditugu. Gero, 1990etik 2010era egindako lanaren laburpena dator. Lan horri esker lortutakoa ere ikusiko dugu, eta hutsuneak ere badatoz. Egindako lanaren gainean bazkideek eta herritarrek dituzten iritziak ere ezagutuko ditugu. Eta, amaitzeko, etorkizunari begira jarriko gara, 2014tik aurrera Elgoibarko Izarra zer izan daitekeen irudikatuzko.



Noiz eta zertarako sortu zen Elgoibarko Izarra?

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak gure herriari lotutako historia luzea dauka. 1963ko martxoan sortu zuten herriko hiru euskaltzalek: Felix Etxeberriak, Sabin Osorok eta Jesus Larrañaga zenak. Garai hartako egoera oso iluna zen euskararentzat eta euskaldunontzat, eta gure herriari argi apur bat emateko helburuarekin sortu zen elkarteak. Eta elkarteak hiru lagunen artean sortu bazuten ere, herritarren artean bazegoen horrelako mugimendu baten beharra. Izan ere, elkarteak sortu eta berehala 1.400 bazkide bildu ziren Elgoibarko Izarraren inguruan. Elgoibartarrok euskaldun izateko daukagun borondatearen adierazleetako bat izan zen.

Urtebete lehenago jaio zen Ikastolari laguntzea zen Elgoibarko Izarraren helburu eta zeregin nagusia. Ikastola babesteko eta indartzeko sortu zen Elgoibarko Izarra, batez ere, eta horretara bideratu zituen hasierako proiektu gehienak.

Hasierako 20 urteak oso emankorrak izan baziren ere, 80ko hamarkadako lehen urteetan hasi zen Elgoibarko Izarraren jarduna eta eragina jaisten edo gutxitzen. Elkarteak sortutako proiektuek bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta seme-alabek etxetik alde egin ondoren bakarrik geratzen diren gurasoen antzera geratu zen Elgoibarko Izarra. Ondorioz,

elkarteko bazkide-militanteak “lanik gabe” geratu ziren. Gainera, orduko pare bat bazkide eragilek aitortu duten moduan, *“militantzia politikoak gaina hartu zion euskararekiko militantziari. Ordura arte euskaldunok ez geneukan markarik edo kolorerik, baina alderdi politikoak sortu zirenean, euskaltzaleok alderdi politikoek markatutako koloreen arabera banatu ginen. Gainera, euskaltzale dinamikoenak alderdi politikoetan sartu ziren”*. Egoera berri hartan, zein zen Elgoibarko Izarraren egitekoa?

Elgoibarko Izarraren pisua eta eragina izugarri jaitsi zen 80ko hamarkadako azken urteetan, eta 1990eko Batzar Orokorrean Elgoibarko Izarra bertan behera lagatzeko unea iritsi zela pentsatu zuten bazkide batzuek; Elgoibarko Izarrak eman zuela bere onena. Baina,

zorionez, bizpahiru bazkidek Elgoibarko Izarrari eutsi egin behar zitzaiola erabaki zuten. Haien ustez, Elgoibarko herriak Elgoibarko Izarraren beharra zuen; Elgoibar euskalduna urruti zegoen oraindik, eta lanean segitu beharra zegoen. Beraz, Elgoibar euskalduntzeko ahaleginarekin aurrera egitea erabaki zen, eta Arrasaten 1987an sortu zen euskara-elkarteen mugimenduko parte izatera pasa zen Elgoibarko Izarra. Hala ekin zion elkarteak bigarren etapari.

Urtebete lehenago argia ikusi zuen ikastola babesteko eta indartzeko sortu zen Elgoibarko Izarra, batez ere.



Gure aurrekoei begira

Atzera begira, aurrera egiteko balorazio-lana 1990 eta 2010 urteen artean egindako lana jaso eta baloratzeko egin dugu, batez ere, baina, aurreko orrialdean esan dugun moduan, Elgoibarko Izarra hori baino lehenago sortu zen. Lehen etapan egindako lana ere handia eta ona izan; "izugarria", bazkideren batek esan digun moduan. 1963an hasi eta 1990era arte elkarteak sortu eta bere aterpean izan zituen proiektu eta egitasmo garrantzitsuenak ikusiko ditugu orrialde honetan.

Ikastola (1962-1973)



Euskal dantzak (1964-1991)



Gau-eskola (1966-1982)



Txistu-eskola (1965-1985)



Odeiko jaialdiak (1966-1978)



Bertsolaritza 1973an hasita



Udaleko Euskara Batzordea (1987an sortu zen, elkartearen inizatibaz)



Aubixa aterpetxea (1973-1990)



Beste egitasmo batzuk: Mendi-irteerak, baleta, ingeles-eskola, berbenak eta ikastolako taberna, tanborrada, Txitxilbakio aldizkaria, sentsibilizazio kanpainak...



Zer egin dugu hogeitun urteotan?

1990

- Elgoibarko Izarra ezin zela desagertu erabaki ondoren, etapa berriko prestakuntza-lanei ekin zion elkarteak: helburuak, lan-sistema, estrategiak ...
- *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera-prozesuan parte hartu zuen elkarteak, herri mailan sortu zen batzordean parte hartuz.

1991

- Otsailaren 1ean Elgoibarko Izarra berriaren **aurkezpen publikoa** egin zen 125 lagunengana. “Guk merezi duela uste dugu. Eta zuk? izan zen leloa”.
- 800 bazkide, 550ek esan zuten Elgoibarko Izarran segitu nahi zutela.

1992

- Elgoibarko Izarra ‘berriaren’ estreinako nukleoa edo eremu sinbolikoa osatu zen, 25-30 lagunekin.
- **‘Ez dok amaitu!’** jaialdia antolatu zen, Elgoibarko Izarraren lehen etapako agente guztiarekin (dantzariak, txistulariak, bertsolariak, kantariak, antzerkia ...), eta elkarteak sortu zutenak omendu ziren.

1993

- 1992ko abenduaren 24an **BARREN** astekariaren **O alea** argitaratu ondoren, 1993an 45 astez sartu zen elgoibartarren etxetako buzoietan. 550 harpidedun izan ziren hasieran (elkarteko bazkideak), eta 20 urtean 4.800 harpidedun izatera pasa da.
- **Udalarekin estreinako hitzarmen ekonomikoa** sinatu zen.
- **Santa Ageda bezperan baserri kantuan** eta eskean irteteko ohitura zaharra berreskuratuz zuten elkarteak.

1994

- **BARREN** astekariaren inguruan **BARREN sariak** eta **kirolBARREN** egitasmoak antolatu ziren.
- **“Alkate-zinegotzien ejenplua nahi dugu!”** kanpaina egin zen 1995eko udal-hauteskundeetan, hautagai euskaldunak bultzatzeko.

1995

- **Atxutxiamaiak begirale-taldearen** aurkezpen publikoa egin zen. Aisialdi-jarduerak antolatzeari eta lehen aisialdi-zerbitzuak eskaintzeari ekin zion elkarteak.
- Bazkide berriak lortzeko estreinatako **bazkide kanpaina** antolatu zen, lehendik zeudenen bazkide-fitxak eguneratu ondoren.
- **Euskara-elkarteen Topagunea** sortzeko prozesuan parte hartu zuen Elgoibarko Izarrak.

1996

- Urtarrilean egin zen **‘Gurean Bai’** hitzarmenaren aurkezpen publikoa, eta herriko 52 elkarteak eta entitateak sinatu zuten hitzarmena (59ri aurkeztu zitzaizen).
- **Dudaripe!** komikia argitaratu zen, herritarren artean Elgoibarko Izarra ezagutarazteko.

1997

- **‘Kafe Usainean’** kultur programa prestatu zen, nazio eta herriko kultur gileei lekua egiteko. 2001. urtera arte mantendu zen programa hori.

1998

- **Pedro Migel Urruzuno** idazle elgoibartarra omentzeko programa prestatu zen, haren heriotzaren 75. urteurrenean. **Urruzuno literatura taldea** osatu eta **Hamaika Literatura aldizkariaren** estreinako zenbakia argitaratu zen.

1999

- Elgoibarko Izarraren kultur eskaintzaren unerik oparoena izan zen: **Elgoibarko Izarra Idazlehiaketak**; **Laiotz literatura aldizkaria**; **Kafe Usainean** (7 emanaldi); **Urruzuno** literatura taldea; **Santa Ageda** eskea; **Sargoateko erromeria**; bertso-jarduerak; hitzaldiak ...
- **Elgoibarko berbetia** jasotzeko prestakuntza-lanei ekin zion elkarteak, Jesus Mari Makazagaren zuzendaritzapean.

2000

- **Toletxe Taberna** proiektua inauguratu eta lanari ekin zion: jatorduak, Ezagunak Lagun Programa, ikuskizunak, poesia-emanaldiak, kontzertuak, diapositiba-emanaldiak ...
- **GAZ-T aisialdi-taldea** aurkeztu zen, nerabeekin aisialdian lan egiteko.
- **Arigera** proiektua aurkeztu zuen jendaurrean, eta lanari ere ekin zion: sektorea sustatu, matrikulazio-kanpaina egin, eta Elgoibarko euskalduntze-alfabetatzearen historia jaso zen.

2001

- **‘Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren (1956-2000) 44 urteko historia’** liburuxka argitaratu eta omenaldia eskaini zitzaizen euskara ikasten eta irakasten jardun zutenei. Tertuliak Programaren estreinako kanpaina egin zen, eta programari hasiera eman zitzaion.

2002

- **Toletxe Proiektuaren** gain-behera hasi zen. Bizilagunekin epaiketa ere izan zen, eta, abenduan, proiektuko ateak itxi egin ziren.

Urtez urte egindakoaren sintesia



- **Gurean Bai-Merkataritza Proiektua** prestatu eta martxan jarri zen.

- **Arigera Proiektuari** amaiera ematea erabaki zen, hiru urteko lanaren ondoren. Tertuliak programa mantentzea erabaki zen.

2003

- Toletxe itxi ondorengo lanei ekin zitzaion: taberna hustu, zorrak ordaintzen hasi, Kutxarekin kreditua negoziatu, eta abal-emaileen batzarra egin (46 herritarrek, bakoitzak 3.000 euroko abala jarri zuten Toletxe sortzeko kreditua eskatzeko).

- **Gurean Bai Elkarteak Proiektua** bertan behera geratu zen apirilean.

- **Euskaldunon Egunkaria** itxi zuten, eta haren aldeko herri-mobilizazioak koordinatu zituen elkarteak. **Berriaren** aldeko kanpaina eta ekintzak ere elkarteak koordinatu zituen.

2004

- Jesus Mari Makazagari **Elgoibarko berbetia** lana prestatzen eta aurkezten lagundu zion elkarteak, eta herri mailako bi ikastaro antolatu ziren (60 lagunek parte hartu zuten).

- Haurrak eta gazteak sailarekin lotutako beste bi programa jarri ziren martxan: '**Berbazulo Euskara errefortzuak**' eta '**Kiribilka**'.

2005

- **Izarren Hautsa 40 urtean** liburuaren aurkezpena egin zen. 1963tik 2003ra bitartean Elgoibarko Izarrak egindakoa jaso zen lan horretan. Ahal zen informazio guztia biltzeaz gain, 54 lagun elkarrizketatu ziren, 40 urteko historia protagonisten

ahotik kontatzeko helburuarekin.

- **BARRENEN** kalitatearen gaineko ikerketa-lana egin zigun Andres Gostin kazetari eta irakasleak.

2006

- **Elgoibarko gau-eskolaren 50. urteurrena** ospatu zen, eta gau-eskola sortu zuen Pako Juaristiri hil ondorengo omenaldia eskaini zitzaion. Gainera, **BARREN** astekarian gehigarri berezia argitaratu zen gau-eskolaren eta euskaltegien gainean.

- '**Kuadrillategi**' programa jarri zen martxan, Elgoibarko gaztekoadriletan euskaraz hitz egiteko ohitura sustatzeko helburuarekin.

- **elgoiBARREN.net atari digitala** jarri zen martxan urrian (ikus www.elgoibarren.net).

2007

- **Ludoteka, gaztelekua eta Gazte Informazio Gunea** kudeatzeko Udalak antolatutako lehiaketa publikoan hartu zuen parte elkarteak, eta lehiaketa irabazi zuen. Lehen lanak ere egin ziren: lantaldea aukeratu, prestakuntza-lanak egin, programazioa prestatu eta ekipamenduetako ateak ireki.

- **Gurean Bai Ostalaritza** Proiektua prestatu zen, eta ostalariei aurkeztu ondoren, aurkezpen publikoa egin zen. Lehen lanak: hitzarmen orokorra eta espezifikoak prestatu, promozioa egin, eta normalizazio-lanei ekin.

2008

- '**Abendua bertsoan!**' bertso-programa berezia prestatu zen, bertso-jaialdiaren 25. urteurrena ospatzeko. Gainera, bertso-eskolako eragilea izan zen **Angel**

Ugarteburu omendu zuen elkarteak.

Amaitzeko, Gabonetako bertso-jaialdiari eskainitako gehigarri berezia argitaratu zuen **BARREN**ek.

- **Elgoibarko Izarraren 45. urteurrena** ospatzeko honako ekintza hauek prestatu ziren: Elkartearen gaineko gehigarri berezia **BARREN**en; 'Elgoibar Koloretan' mahai-jokoa; Euskal kultura tradizionalaren transmisioa ikastaroa, Xamarrekin; bazkide-kanpaina ...

2009

- Udalarekin elkarlanean, **Gotzon Garateri hil ondorengo herri-omenaldia** eskaini zitzaion, eta haren omenez programazio berezia prestatu zen: hitzaldiak, Gotzonen lanen erakusketa, gehigarri berezia **BARREN**en ...

- **BARRENEN** gaineko ikerketa soziologikoa egin zuen Aztiker enpresak, Topaguneari esker. Ikerketa herriko hainbat lagun eta eragilerekin egindako elkarrizketekin osatu zen. Emaitzak oso-oso onak izan ziren.

2010

- "**Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak. 1990-2010. Atzera begira aurrera egiteko**": Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duen lanaren balorazioa egin zuen dinamizatzaileak. Gogoeta hori izan da elkarteak gerora osatu duen balorazio-dokumentuaren abiapuntua.

- **XXI. mendeko euskaldunon elkarteak**: mugimenduaren gaineko urtebeteko gogoeta-prozesua egin zen, Topaguneak gidatuta. Mugimenduaren etorkizuneko oinarriparak jaso ziren dokumentu batean.



Zer lortu dugu? Zertan ez dugu asmatu?

Asko da Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duena. Dozenaka proiektu, egitasmo eta ekintza sortu eta pres-tatu ditu gure herria euskaldunagoa izateko helburuarekin, baina, zer lortu da 20 urteotako lanari esker? Bete dira duela 20 urte jarritako helburuak? Elgoibar duela 20 urte baino euskaldunagoa da? Txostenean sakon aztertu eta baloratu da atal hau, eta lorpenak eta hutsuneak identifikatzen saiatu gara. Hona, berriz, laburpen txiki bat baino ezin dugu ekarri, daukagun lekuak ez digulako besterik egiteko aukerarik ematen.

LORPENAK

- 1990ean desagertzeko arrisku bizian egon ondoren, ibilbide luzea eta emankorra egin du, oro har, Elgoibarko Izarrak 20 urteotan. Bazkide batek esan digun moduan, *“egin dena baino askoz gehiago ezin zen egin. Inork espero zuena baino askoz gehiago egin da”*.
- Proiektu eta egitasmo gehienekin asmatu delakoan gaude. Proiektu batzuekin bete-betean asmatu da. Beste batzuekin, berriz, maila onean jardun du elkarteak. Hala ere, beti ez da asmatu, eta proiektu- ren batek elkartearen etorkizuna bera ere arriskuan jarri zuen (*To letxe* taberna).
- Elgoibar diferentea litzateke Elgoibarko Izarra 1990ean desagertu izan balitz. Bazkide batek esan duen moduan, *“Elgoibarko euskaldunon egoera (eta euskararena) okerragoa litzateke Elgoibarko Izarrarik gabe. Dena den, jendea, orokorrean, ez da konturatzen elkarteak egindakoa lanaren balioaz. Normaltzat hartzen ditu elkartearen eskutik sortutako proiektuak (BARREN, Atxutxiamaika ...), baina askok jakin ere ez dakite nondik datozen. Elkartearen lana ez da ezagutzen, eta ezagutzen ez dena baloratzea zaila da”*.

LORTU EZ DENA

- Elkartea behar baino gutxiago errotu da herritarren artean. Elurra bota bai, baina kaleak zuritzen ez direnean moduan pasa zaio. Lan asko egin du elkarteak, eragin handiko proiektuak jarri ditu martxan, baina elkarteak ez dauka egindako lanaren neurriko pisurik Elgoibarko gizartearen.
 - Jendeak ez dauka Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duenaren berri. Herritarrek, oro har, ez dakite Elgoibarko Izarrak zer egin duen. Elkartearen izena, beharbada, ezaguna da, baina zenbaterik dakite elkarteak zer egiten duen? Ez da asmatu egindakoa gizarteratzen. Elkartearen proiektuak ezagunak dira, baina elkartea ez da hain ezaguna.
 - Diru-laguntzekiko mendekotasun handiegia izan du elkarteak, eta horrek, besteak beste, elkartearen lan-autonomia mugatzen du. Diru-laguntzak behar beharrezkoak dira, baina beste diru-iturri batzuk zabal-tzen asmatu behar du, elkartearen autonomiaren mesedetan.
- Hutsuneak izan dira, dudarik gabe, baina egin ez denak ezin dio gaina hartu, inolaz ere, egin denari. Lorpenak, dudarik gabe, handiagoak dira hutsuneak baino.

ZERGATIK EGIN DUGU?

20 urteotan egin dugunak badauka azalpen edo marko teoriko bat. Batetik, 1990ean Siadeco enpre-sak, Udalaren eskariz egindako lan batean proposatu zizkigun bidezidorrak zabaltzen saiatu gara. Bestetik, gure jarduna eta zereginak hobeto ulertzeko Jose Maria Sanchez Carrion Txepetxen teoriak izan ditugu bidelagun. Besteak beste, hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan kontutan hartu behar diren hiru faktoreak aintzat hartuta jardun dugu lanean: euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa. Erabilera izan da bigarren etapa honetan gehien landu dugun hizkuntz-faktorea.

PARTE-HARTZEAREN GAINEKO HIRU DATU

- Langile profesionalak: 90 inguru.
- Aisialdiko hezitzaileak: 150 inguru.
- Bazkide-militanteak: 110 lagun inguru.

DIRU-KONTUAK

- 8.000.000 euro inguru (1.333.800.000 pezeta) inbertitu ditugu gure proiektuetan 20 urteotan.
- Aurrekonturik altuena 2009an izan genuen: 840.000 euro inguru (140.000.000 pezeta).
- Udalak elkarteari 20 urteotan emandako diru-laguntza: 2.700.000 euro (440.000.000 pezeta inguru). Aurrekontu osoaren % 34a finantzatzen lagundu dio Udalak elkarteri.

Zer pentsatzen dute bazkideek?

Eta zer diote Elgoibarko Izarrako bazkideek elkartearen gainean? Zein da bazkideek duten iritzia? Kasu honetan ere ezin ditugu iritzi guztiak orri bakarrera ekarri, baina esanguratsuenak jasotzeko ahalegina egin dugu.

20 urteotan egindako lana ikusi ondorengo SENTSazio BATZUK:

- *“Lan izugarria egin da. Lortu ez denak ezin dio gaina hartu lortu eta egin denari”.*
- *“Lan asko egin dela uste dut, nahiz eta gero, errealitatean, kalean, ez den horren neurriko fruiturik sumatzen. Egunero ibiltzen naiz Elgoibarko kaleetan, eta euskara gutxi entzuten dut inguruan”.*
- *“Kultur elkarte izaera hasierako urteei lotuta ikusten dut. Elkarte profesionalizatzen joan den heinean gauza on batzuk irabazi ditu, baina beste batzuetan atzera egin da. Egindakoaz harro egoteko moduan gaude, baina ezin gara egindakoarekin konformatu”.*
- *“Lan asko egin da, eta gehiena ondo egin dela uste dut, gainera. Hori bai, hainbeste lan egin ondoren, hondarreen gutxi geratu den sentsazioa daukat. Jendeak, oro har, ez daki Elgoibarko Izarrak zer egin duen 20 urteotan. Eta lehen etapan egin zuenaren berri ere ez dauka! Herri honek asko zor dio Elgoibarko Izarrari, baina ez da horretaz jabetzen”.*
- (...)

Elgoibarko Izarra definitzeko BERBA BAT

Euskara da bazkideek Elgoibarko Izarra definitzeko erabiltzen duten berba nagusia. Jendeak euskararekin lotzen du elkarte. Hala ere, beste definizio batzuk ere badaude: kultura, Atxutxiamaika, herrigintza, BARREN, herrigintza ...

Elgoibarko Izarraren alderdi POSITIBOAK

- *“Euskalgintzako erreferente garrantzitsuenetako bat izatea. Herri mailako elkarte edo proiektu askoren ama”.*
- *“Ideologia eta pentsamendu guztientzat irekia dela; marka politikorik gabekoa”.*
- *“Herri-ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlana posible dela frogatu izana”.*
- *“Hainbeste urte pasa ondoren (50 laster!), dinamikari eustea; gorabeherekin, eta gizarteko aldaketetara egokitzuz”.*
- (...)

Elgoibarko Izarraren ALDERDI NEGATIBOAK

- *“Diru-laguntzen mendekotasun handiegia”.*
- *“Jendeak ez duela elkarte ezagutzen; eta ezagutzen ez dena ezin da sentitu, baloratu edo prestigiatu”.*
- *“Harreman gutxi herriko beste elkarteekin”.*
- *“Batzuek elkarte sutsuki defendatzen dute, baina beste batzuek maila berean egiten diote kontra”.*
- (...)

Elgoibarko Izarra 2014tik aurrera

Atzera begirako lana da, batez ere, egin duguna, baina etorkizunari begira gaude. Balorazio-prozesuan parte hartu dutenek etorkizuna zelan ikusten duten (edo zelan ikusi nahiko luketen) ekarri dugu orri honetara. Segidan datoren abiapuntu moduan hartuta, 2013ko apirila eta uztaila artean hartuko ditugu behin betiko erabakiak.

- 1) **Segitu behar du elkarteak lanean?** Baietz esan du jendeak; merezi duela lanean segitzeak. Asko eta ona dela elkarteak egindako lana, baina, zoritxarrez, oraindik asko dagoela egiteko. Ezin garela egindakoarekin konformatu, eta, segitu egin behar dugula lanean.
- 2) **Elkartearen izaerari dagokionez:** Gizarte-mugimendu izaera mantendu behar dela defendatzen dute gehienek, baina bada zerbitzu-enpresaren formularen alde egiten duenik (bazkideen militantziari gero eta irrealagoa irizten diolako).
- 3) **Zer funtzio bete behar ditu elkarteak?** Bazkideek eta herritarrek nabarmendutako funtzioak asko eta askotari-koak dira: kulturegintza landu behar da, batez ere; familietan eragiten saiatu behar da elkarteak; erdaldunekin eta etorkinekin orain arte baino lan gehiago egin behar da; gaur egungo proiektuak sendotu edo indartu behar dira ... Helburuek lorgarriak eta egungo egoerara egokituak izan behar dute, jendearen iritziz.
- 4) **Behar dira langile profesionalak? Zer paper bete behar dute bazkideek?** Denok bat gatoz aurrerantzean ere langile profesionalak beharko direla esaterakoan. Hori bai, Elgoibarko Izarrak gizarte-mugimendua izan behar badu, bazkideari orain arte baino pisu handiagoa eman beharko zaio. Langile profesionalen eta bazkide-militanteen pisua eta eragina orekatu beharko da.
- 5) **Jakintza, komunikazioa eta transmisioa zaindu:** Jakintza eta pentsamendua mugimenduaren erdigunean jarri behar dira. Formazioa eta informazioa energia dira, eta horrek mugiarazten gaitu. Beraz, jakintza etengabe lantzearekin batera, komunikazioa eta transmisioa uneoro zaindu behar dira, bai barrura begirakoa (langileak, bazkideak ...) eta baita kanpora begirakoa ere (elkarteak, herritarrak ...).
- 6) **Bideragarritasun ekonomikoa landu:** Etorkizuneko proiektuak bideragarria izan behar du ekonomikoki, eta, ahal dela, diru-laguntzen mendekotasuna gutxitzeko ahalgina egin behar da, elkartearen lan-autonomiaren mesedetan. Proiektu ekonomiko sendoa behar du mugimenduak, hori lortzea oso zaila den arren.
- 7) **Mugimendua gaztetu:** Etorkizunari begira bagaude, gazteak erakarri eta inplikatu behar dira, hain gazteak ez direnekin batera, biharko Elgoibarko Izarra jasotzeko. Ahal den neurrian, mugimendua gaztetu behar da (gazte-mugimendu bat ez bada ere); odol berria sartu behar da, etorkizunari gogotsu eta kementsu heltzeko.
- 8) **Herri mailako euskalgintza-sarea osatu:** Bakoitzak bere aldetik jardun beharrean, behar bada, herri mailako euskalgintza/herrigintza artikulatzeko aitzindaritzaz edo lidergoa har dezake Elgoibarko Izarrak. Batzuen ustez, aliantzak eta elkarlana ezinbestekoak izango dira 2014tik aurrera. Hala ere, beste batzuen ustez oso-oso zaila da horrelako sare bat ehuntzea.
- 9) **Herritik naziora, naziotik herrira:** Herri mailako elkarteak da Elgoibarko Izarra, baina ez da herrira mugatu behar bere eragin-esparrua. Azken helburua Euskararen Herria osatzea bada, bailara mailako planari ere erreparatu behar zaio, eta inoiz baino presenteari izan behar du nazio mailako mugimendu baten parte dela Elgoibarko Izarra.
- 10) **Egoera berria, aukera berriak:** Badirudi denok onartzen dugula aro edo egoera berri batean dagoela Euskal Herria. Hori horrela bada, horrek euskalgintzari ere eragin behar dio, modu positiboan. Badirudi fragmentazioa txikitzeko bidean goazela, eta asmatu beharko genuke hori ondo kudeatzen, euskalgintzaren mesedetan.
- 11) **Krisi ekonomikoaren ondorioak:** Bizi dugun krisi ekonomikoak mugiarazi egin behar du elkarteak. Ondo pentsatu beharko du zer egin nahi eta ahal duen aurrerantzean, eta egoera zein den jakinda hartu beharko ditu erabakiak. Badirudi ez dela orain arte izan den dirutzarik egongo aurrerantzean, eta estrategiak eta lan-metodoak egokitu egin beharko dira, seguruenez.

Soinu zaharrari, doinu berriak

Soinuaz gozatzeko taldetxo bat sortu dute Musika Eskolan



Aste honetan egin dute lehen saioa musika eskolan.

Musika eskolako akordeoi ikasle ohiak eta gaurko ikasleak bildu dira soinuaz gozatzeko. Soinuak batzen ditu, eta soinua joz gozatu nahi dute. Garai batean soinuak arrakasta handia zuen musika eskolan, eta garai hartako ikasleak berriz biltzea nahi dute. Hasierako asmoa entseguak egin eta abesti berriak ikastea da, baina taldeak berak erabakiko du dinamika. Dozena bat lagun daude momentuz, baina taldean jende berria hartzeko gogoz daude. Obligaziorik gabe, ondo pasatzea da euren asmo bakarra.

Soinu zaharrei hautsa kendu, eta doinu berriak atera nahi dizkiete dozena bat lagunek. Batzuk egungo ikasleak dira; ikasle helduak. Maialen, Gloria eta Kontxi orain dela laupabost urte hasi ziren soinua jotzen ikasteko eskoletara joaten, eta oso gustura dihardute. Solfeo ikasketarik gabe ekin zioten, eta dena batera ikasi dute. Eki-men polita iruditu zaie, eta beraiek ere taldean parte hartzeko prest daude.

Gainerako taldekideak musika eskolako akordeoi ikasle ohiak dira. Hamabost bat urte izango dira soinua azkenekoz jo zutenetik, baina orain, hauspoa martxan jarri nahi dute

berriro. Maite Janeiro akordeoi irakaslearen gidaritzapean, hilean pare bat aldiz geratuko dira entseguak egiteko, eta nork daki, agian kontzerturen bat ere emango dute aurrerago.

Arrazoiak arrazoi, aspaldi aldendu ziren gehienak musika eskolatik, eta etxeko bazterren batean utzi zuten soinua, isilik eta ahazturik. Baina, orain dela hilabete batzuk berriz elkartu behar zutela bururatu zitzaion akordeoi ikasle ohi bati, eta Maite Janeiroren bitartez, egitasmoa aurrera eramatea lortu dute. Astelehenean egin zuten lehen entsegua, eta irailetik aurrera hilean behin edo bi-

rritan batuko dira, abesti berriak ikasi eta entseguak egiteko. Taldeak berak erabakiko du entseguen dinamika, eta norberak erabakiko du taldeari eskainiko dion inplikazioa. Argi utzi nahi dute ez direla akordeoi eskolak. Guztiek komunean duten zaletasunari esker, ondo pasatzea da helburua.

Hortaz, musika eskolan soinua ikasten ibilitako ikasleak, edo besterik gabe, soinua jotea gustuko dutenei egin diete deia. Interesatuak ondorengo telefonotara deitu dezakete, izena emateko: 943 742 145 (Musika Eskola) edo 646 275 287 (Maite Janeiro).

Irailetik aurrera, hilean behin edo birritan batuko dira soinuaz gozatzeko

Elgoibarko Izarrak 1990etik 2010era egindako lana jaso eta baloratu du

43 lagun eta hamazazpi eragile-erakunderen iritzi eta ekarpenekin osatu dute txostena

Elgoibarko Izarrak 1990etik 2010era egindako lana jaso eta baloratu du. Atzera begira, aurrera egiteko (1990-2010) izena jarri diote dokumentuari, eta elkarteko arduradunek esandakoaren arabera, bi urteko lanaren emaitza da txosten hori. Lan handia izan da, jende askoren parte-hartzea eskatu duelako, baina emaitzarekin oso gustura geratu dira.

Elgoibarko Izarra 1963an zergatik sortu zen azaldu eta lehen etapari errepaso txiki bat eman ondoren, Elgoibarko Izarrak hogeiei urteotan egindako lana jaso dute. Gainera, lanaren balorazioa ere egin dute, lorpenak eta hutsuneak identifikatuz. Hori dena bazkideen eta herriko eragileen iritziekin eta ekarpenekin aberastu dute, eta dokumentuaren amaieran, etorkizunari begira jarri dira. Etorkizuna ikustea da lanaren helburuetako bat, eta elkarte euskaltzaleak 2014tik aurrera izan eta egin behar duenaren gaineko lehen gogoeta jaso dute.

Dokumentua prest dago, eta edozeinek jaso ahal du. Horretarako, jarri harremanetan elkarteko arduradunekin (943 741 626). Baina lana ez dute paperean bakarrik bistaratuko; dozena bat minutu inguruko bideoa ere prestatu dute, eta dagoeneko www.elgoibarren.net helbidean dago ikusteko moduan.



Bertan behera geratu da Elgoibarko Izarraren ezohiko batzar orokorra

Elgoibarko Izarrak ezohiko batzar orokorra deituta zeukan uztailaren 4rako, baina bertan behera geratu da. Elgoibarko Izarrako Hedabide Sailaren etorkizuna erabakitzeko helburua zeukan batzarra, baina erabakitze-prozesuari lotutako eginbehar batzuk direla-eta, erabakia hartzeko unea atzeratu beharra ikusi dute arduradunek.

Uztailaren 2an hasiko dira Mendaroko Santana jaietako danborradarako entseguak



Mendaroko Santana jaietako nagusien danborradarako entseguak uztailaren 2an hasiko dira. Uztaileko hiru astelehenetan eta hiru eguaztenetan egingo dituzte entseguak Ikastolan, 21:00etatik aurrera. Parte hartzeko interesa dutenek, uztailaren 2an bertan eman beharko dute izena.

Horrez gain, berrikuntza bat izango dute aurtengo Santana jaiak: piropo lehiaketa. Euskarazko piropoak idatzi beharko dira, orijinalak eta ez sexistak. Mendaroko tabernetan eta Gaztelekuan jarriko dira piropoak entregatzeko kutxak, eta hantxe utzi beharko dira idatziak, uztailaren 15erako. Saria sorpresa izango da.

Umorearen Eguna antolatu dute biharko, Altzolan

Zubibai elkarteak antolatuta, Umorearen Eguna egingo dute bihar Altzolan. 12:00etan risoterapia tailerra egingo dute. Edonork har dezake parte, baina bereziki, txikienez antolatu dute. 14:30ean herri bazkaria egingo dute. Norberak eraman beharko du jana besteekin banatzeko, eta antolatzaileek jarriko dituzte edariak. Arratsaldean, Peli umorista bizkaitarrak *La verdadera historia del mundo* ikuskizuna aurkeztuko du.

Uztailaren 15era atzeratu dute 'Burdinolen ibilbidea'

Arbasoen deia egitasmoaren barruan Burdinolen Ibilbidea egitekoak ziren joan zen domekan, baina jende gutxik izena eman zuela-eta, uztailaren 15era atzeratu dute.

Plazatik Gaztetxerako finalean lehiatuko da bihar Mikel Olaizola bertsolari elgoibartarra, Eibarren

Bazkalostean izango da finala, eta guztira, lau bikote arituko dira kantuan

Plazatik Gaztetxera txapelketako finala jokatu da bihar, Eibarren, eta finalisten artean izango da Mikel Olaizola bertsolari elgoibartarra, Eneko Beretxinaga soraluzearra lagun hartuta. Lau bikote lehiatuko dira: Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitia, Maddi Sarasua eta Aimar Karrika, Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga eta Peru Vidal eta Imanol Uribe. Finala bazkalostean jokatu da, Eibarko Gazte Asanbladak 200 bat lagunentzako bazkaria ere antolatu duelako egun horretarako. Bazkaritarako txartelak Plazatik Gaztetxera txapelketako kanporaketak jokatu diren herri guztietan jarri dituzte salgai. Elgoibarren, Iratxe eta Lanbroa tabernetan daude salgai txartelak, bost euroan.



Datorren barixakuan hasiko da aire libreko zinemaldia, Kalegoen plazan

Gaur zortzi hasiko da aire libreko zine emanaldia, *El Intocable* filmarekin. Uztailaren 30era bitartean, hamar film ikusteko aukera izango da, Kalegoen plazan, eta ohi legez, era eta gustu guztietako pelikula emango dituzte aurten ere pantaila handian. Pelikulak barixakuetan eta zapatuetan izango dira, eta emanaldi egunean euria egingo balu, atzeratu egingo lukete proiektzioa. Hala, barixakuetako filma domekara pasatuko litzateke eta zapatuan euria eginez gero, astelehenera edo hurrengo astera. Kalegoen plazan 600 lagunentzako lekua egokituko dute. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira.

<i>El intocable</i>	uztailak 6
<i>La guerra de los botones</i>	uztailak 7
<i>Blancanieves</i>	uztailak 13
<i>Super 8</i>	uztailak 14
<i>Rango</i>	uztailak 21
<i>Los juegos del hambre</i>	uztailak 22
<i>Cowboys & Aliens</i>	uztailak 27
<i>The wish fish</i>	uztailak 28
<i>La pesca de salmón en Yemen</i>	uztailak 29
<i>Chico & Rita</i>	uztailak 30



El intocable

San Joan joan da

Urteko gau motzena argitzeko sua piztu zuten Elgoibarren eta Mendaron, eta herritar ugari batu ziren suaren bueltan. Elgoibarren, Santa Ana kalean egin zituzten suak, eta ausartenek suaren gainetik ere egin zuten salto. Mendaron, Herriko Enparantzan ospatu zuten San Joan bezpera eguna, musika eta jai giroan. Altzolan, bestalde, barixakutik astelehenera arte festa giroan murgilduta egon ziren. Auzotarrek San Joan arbola jarri zuten lehenik Karmen enparantzan, eta gauean, ura sutan jarri zuten. Ondorengo bi orri hauetan batu ditugu San Joan bezperako irudiak. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net

Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar

Elgoibar



Elgoibar

Elgoibar



Altzola



Altzola



Altzola



Altzola



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Mendaro



Carlos Rodriguezek egin du denborarik onena Quebrantahuesos proban

Elgoibar eta Mendaroko hemeretzi lagunek egin dute



Israel Soto eta Egoitz Mendikute, Portaleten gora.

Quebrantahuesos eta Treparriscos txirrindularitza probak jokatu ziren zapatuan, eta ohikoa den legez, Elgoibartik eta Mendarotik ere jende dezentek parte hartu zuten bai batean zein bestean. Sabiñanigon hasi eta amaitzen dira biak, baina lehenengokak, Quebrantahuesosak, dauka entzute handiagoa, luzeagoa eta gogorragoa delako. 202 kilometroko ibilbidea osatu behar dute txirrindulariek, eta bidean lau mendate gainditu behar dituzte: Somport (1.640 metro), Marie Blanche (1.095), Portalet (1.794), eta Hoz de Jaca (1.272). Izenak berak dioen moduan, hezurra hausteko moduko lasterketa da, baina aurten eguraldia aldeko izan dute txirrindulariek, tarte askotan haizea kontra izan arren. Guztira, 7.584 txirrindularik parte hartu dute, eta horien artean Elgoibar eta Mendaroko hemeretzi. Gure ordezkarien artean Carlos Rodriguez Mariño elgoibartarra izan da azkarrena, 6:10:07ko denborarekin. Treparriscos proba Quebrantahuesos baino arinagoa da, baina badi, hala ere, bere zailtasuna (82,7 kilometro). Aurten, Elgoibar eta Mendaroko hamar lagunek parte hartu dute, eta Aitor Cid elgoibartarrak egin du guztietan denborarik onena. Guztira, 2.114 lagunek hartu dute parte XXII. edizio honetan.

Sailkapena


QUEBRANTAHUESOS

126 Carlos Rodriguez Mariño	6:10:07
383 Jonatan Romera Herrero	6:22:56
469 Andoni Ortega Agote	6:26:51
491 Ruben Lopez Villa	6:27:21
1030 Antonio Cid Rico	6:45:14
1132 Jokin Muñoz Olazabal	6:47:14
1145 Josu Motriko Larrañaga	6:47:32
1222 Alberto Mujika Arkarazo	6:49:17
1926 Jose Antonio Ruiz del Rey	7:07:36
2308 Amaro González de Mesa Eli	7:16:49
2435 Jon Urbietta Sanz	7:20:03
2603 Iker Jausoro Murgiondo	7:24:18
2663 Mario Romero Sanchez	7:25:58
3056 Borja Rodriguez Barreras	7:35:26
4275 Josu Etxeberria Aizpitarte	8:05:18
4481 Egoitz Mendikute Ferreira	8:11:39
4482 Israel Soto	8:11:39
6095 Eneko Ramos Ortiz de E.	9:11:21
6935 Pedro Pineda Bernal	10:09:50

TREPARRISCOS

485 Aitor Cid Rico	3:13:04
580 Iñaki Goñi Gabilondo	3:17:40
581 Nerea Lariz Azkona	3:17:40
1402 Aitzol Urain Epelde	4:07:07
1446 Janire Elordi Loiola	4:10:10
1455 Joseba Mendikute Olazabal	4:10:58
1479 Patricia Navo Cotrina	4:13:00
1703 Andrea Arriola Ferrer	4:35:43
1704 Gorka Zabala Zabaleta	4:35:45
1960 Igor Elizburu Astigarraga	6:28:52

Gaur iluntzean jokatu da Nahaste Borraste proba herrikoia



Gaur 19:00etatik aurrera jokatu da Nahaste Borraste proba herrikoia 28. ekitaldia. Kimetz elkarteak antolatzen du urtero proba hau, eta 16 urtez gorako edonork parte hartu dezake. Parte hartzaile bakoitzak hiru probatan lehiatu behar izaten du. Hasteko, zazpi kilometro inguru egin behar izaten dituzte bizikletan, eta ondoren, Kalegoen plazan 25 kiloko zakua bizkarrean hartu eta 400 metro egingo dituzte harekin, San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena. Azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute antxitxika. Interesatuta daudenek badute oraindik parte hartzeko aukera, lasterketa hasi aurretikoan ere eman ahal izango dutelako izena, plazan bertan.

Amaitu du denboraldia Mintxeta atletismo taldeak

Arduradunak 'pozik' agertu dira lortutako emaitzekin



Mintxeta atletismo taldeko korrikalariak bukatu dute aurtengo denboraldia, eta arduradunak "pozik" agertu dira lortu dituzten emaitzekin. Taldeka zein banaka garaipen garrantzitsuak lortu dituzte guztiek. Alebin mutilak Gipuzkoako lehen postuan sailkatu dira krosetan, eta infantil neskek bigarren egin zuten Euskadiko zein Gipuzkoako kros txapelketetan. Bakarkakoetan, Johan Rodriguez lehen postuan sailkatu da Gipuzkoako pisu jaurtiketan eta konbinatuan. Era berean, Eider Iglesiasek alebinetan eta Nora Mandiolak infantiletan egindako lorpenak nabarmendu dituzte. Azkenik, Iñaki Sagarnak hirugarren egin du Euskadiko kros txapelketan eta lehena geratu da Euskadiko hesi-lasterketa txapelketan.

178 umek dihardute Kirol Campusean



Astelehenean hasi zen udako Kirol Campusa, eta 178 umek dihardute bertan parte hartzen. Uztailaren 20ra bitartean beraz, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute ume horiek, tituludun zortzi begiralaren ardurapean.

Sanlo eskubaloi taldearen urteko batzarra, gaur

Sanlo eskubaloi taldeak gaur egingo du urteko batzarra 19:00etan, Kultur Etxean. 2011-2012 denboraldiko emaitzak aurkeztuko ditu zuzendaritzak, kirol nahiz ekonomia alorrekoak. Era berean, datorren denboraldirako aurrekontua eta bazkide kuotak azalduko dituzte. Aipatu, bestalde, Gipuzkoako Federazioak Sanloko bi talde nabarmendu dituela, aurtengoa egin duten denboraldiagatik: Alcora senior mutilen taldea, Lehen Nazional mailara igotzeagatik, eta Grupo Eibar kadete mutilen taldea, kiroltasun handiena erakutsi duelako.

Tenis eta padel txapelketako finalak, domekan

40-15 elkartek antolatutako tenis eta padel txapelketak sartu dira azken txanpan, eta domekan jokatuko dituzte finalak. 9:30ean tenis txapelketako umeen finala izango da, eta horren ostean etorriko da nagusien txanda. 10:30ean padel finala jokatuko dute, eta 12:00etan izango da tenis finala.

Debabarrena BTT martxa, domekan

Domekan egingo dute Debabarrena BTT martxa. 45 eta 25 kilometroko bi ibilbide egongo dira aukeran, eta biak ere, Karakate inguruan egingo dituzte. Oraindik izena eman ez dutenek www.debabarrenaturismo.com helbidean egin dezakete, edo bestela, egunean bertan ere egongo da aukera. 9:00etan jarri dute hitzordua, Mintxetan. Horrez gain, spinning saioa egingo dute, 9:30ean. Nahi duenak Mintxetan bertan bazkaltzeko aukera izango du, eta, aurtengoa ere, igerilekuetarako sarrerak oparitu ditzkiete partaideei.

Futbol eskola

Uztailaren 2tik 30era eman ahal izango da izena CD Elgoibarren futbol eskolan. 2003-2004an jaiotako alebinek eta 2002an jaiotako benjaminek har dezakete parte. Interesatuak, Mintxetan bertan eman dezakete izena, astelehenean 19:00etatik 20:00etara, edo 943 741 949 telefonora deituta.

LANA

ESKAERA

- Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko prest. Garbiketak edo zerbitzari lanak ere egingo nituzke. Gidabaimena eta autoa ditut. **☎ 662 589 611 / 943 250 296**
- Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-duak zaintzeko, nahiz garbiketara lanak egiteko. **☎ 626 246 543**
- Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-duak zaintzeko, nahiz garbiketara lanak egiteko. **☎ 669 311 385**
- Bikote atzeritarrak lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, margoketa lanak egiteko, garbitzeko, baserriko lanerako, jostun lanak egiteko... Edozein lan. Esperientzia eta erreferentziak ditugu. **☎ 629 144 188**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. **☎ 663 657 870**
- Emakumeak umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. **☎ 648 603 029**
- DBH2ra arteko klase partikularrak ematen ditut. Uztailean, goizez. **☎ 688 664 727**
- Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaindu, garbitzaile edo zerbitzari lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. Erreferentziak ditut. **☎ 659 101 631**
- Emakume gaztea lanerako prest. Umeak zaindu, zerbitzari edo garbitzaile lanak egingo nituzke. **☎ 652 779 800 / 628 238 955**
- Gizona lanerako prest. **☎ 685 212 060**
- Alemaniarako klase partikularrak ematen ditut. Adin guztietako pertsonentzako. Metodo atsegina. **☎ 670 793 312**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketara edo saltzaile lanak egiteko ere bai. Papelak eta erreferentziak ditut. **☎ 636 419 814**

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, udan. Orduka edo interna. **☎ 698 632 922**
- Emakumea lan bila. Ilapaintzaile eta garbitzaile lanetan esperientzia handia. **☎ 663 430 810**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. **☎ 686 578 228**
- Neska gazte euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. **☎ 697 322 306**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketara edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. **☎ 699 609 190**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketara egiteko prest. **☎ 699 232 823**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketara egiteko prest. **☎ 690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest. **☎ 669 513 926**
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna umeak zaintzeko prest. **☎ 674 862 116**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Lanerako gogo handia daukat. **☎ 648 505 985**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. **☎ 616 260 793**

ETXEBIZITZAK

- Pisua alokagai San Frantzisko kalean. Logela bat. Berritua. **☎ 660 609 658**
- Pisua salgai Elgoibarren. 3 logela, egongela, komuna, sukaldaria eta ganbara. Guztiz berritua, bizitzera sartzeko prest. **☎ 688 658 813**
- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berritua. **☎ 680 707 639**

BESTELAKOAK

- Bigarren eskuko karro-denda salgai. Bi logela: bata 1,35 metrokoa eta bestea, 1,20 metrokoa. Erdian jangela txiki bat du. Abanize itxia eta toldoa. Atzean, arko handi bat. Egoera onean. 350 euro. **☎ 689 781 069**
- Estimua handitan ditudan belarritakoak galdu ditut, King-Kong eta Maala bitartean. **☎ 943 740 956**
- Txankakuako autobus geltokia dagoen lorontzi batean Unibertsitateko apunte batzuk aurkitu ditut. Zubi Ondo elkartean utzi ditut.
- Stokke Sleepi (mini + sehaska) zuria salgai. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. **☎ 648 203 775 (19:00-20:00)**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Pabilioia alokairuan Ibaicitartean. Egokituta eta beteta, garabia barne. 400m². A7 pabilioia. **☎ 659 574 197**
- Garaje maraduna alokairuan, Leku Ederren. **☎ 943 741 715**

KINTOAK

- 1959an jaiotako mendarorrek edo Mendaron bizi direnek kinto bazkaria egingo dute uztailaren 7an, Landa jatetxean. Interesatuak ekainaren 30erako eman beharko dute izena. **☎ 685 720 529**

Badatoz Sanbartolomeak!

Publizitatea jartzeko:
943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



• 3+1=4 urte! Eguzki-raino eta buelta maite zaitugu, Teshale. Zorionak! Nahia, Elene eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Markel**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Paula, Jakes eta Eleneren partez.



• Zorionak, txapeldun, asteazkenean 10 urte bete zenituelako. Jarraitu jator, eta gozatu oporretan! Familiakoen partez.



• Badator zure egunak Zorionak, **Junel** Astelehenean 2 urte! Patxo bat etxekoen eta bereziki Danel, Eneko eta Aneren partez.



• Zorionak, **Maria**, zure hirugarren urtebetetzean. Denon partez, bereziki, Karla, Intza eta Luciaren partez. Paaaa, maitia!



• Zorionak, **Nori**, 7 urte potolo-potolo. Unai, aita eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Ane**, 7 urte egingo dituzulako. On-do pasa eguna eta bueltan ospatuko dugu. Muxu handi bat. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Maddi**, hirlaren 26an 4 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Aimar eta Maleni**! Ondo pasatu genuen igandean zuen laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat, amatxoren eta aitaoren partez.



• Zorionak, **Amanda eta Gorane**, zuen bederatzigarren eta bosgarren urtebetetzeengatik. Muxu asko, aittita-amamen partez.



• Zorionak, **bikotel** Primeran pasa genuen lehengo asteko ospakizunean. Bejondeizuela! Koadrilakoen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.



Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria **GORENAK** taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen.
(Uztailaren 8ko Berrian jakingo da irabazlea).

Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

29 barixakua

Ikasturte amaiera

19:00 Diploma banaketa

BH Institutuko diploma banaketa, Herriko Antzokian.

Kirola

19:00 'Nahaste Borraste'

Kimetz Elkartek antolatuta, Kalegoen plazan.

30 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserritarrek euren produktuak jarriko dituzte salgai.

12:00 Kale Kantariak

Kalebarren plazan.

1 domeka

Kirola

9:00 Debarrena BTT marxa

Mintxetan.

9:30 Spinning saioa

Mintxetan.




Uztailaren 4an,
MINTXETARA IRTEERA!
Izenematea irekita

Larunbata 30, 11:00etan
**GURASOENTZAKO
KAFFE TERTULIA.**
Gaia: Nerabeak eta sare sozialak.
Informazio gehiago,
646 853 617 telefonoan.




OKINDEGIA	GUARDIAK	Egunez	Gauetz	Fernandez
1 domeka EIZAGIRRE		9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
BOTIKA ORDUTEGIAK 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00		29 Garitaonandia 30 Etxeberria 1 Etxeberria 2 Fernandez 3 Yudego 4 Zabaleta 5 Barrenetxea	Garitaonandia Etxeberria Etxeberria Yudego Yudego Barrenetxea Barrenetxea	Ibañiez Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638 Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea. Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelerezko klaseak
- Creditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatoz bazkaltzera txarangaren kalejira
amaitu ondoren? 17:00etan, Sigmako aparkalekuan
Animatu, primeran pasako dugu-eta!

MENUA:

- Lehenengo platera: arroz-entsalada
- Bigarren platera: okela gisatua patatekin edo barazkiez betetako berenjena gainerreak
- Postrea: Gazta-tarta
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura

Izenematea Elgoibarko Izarran
edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoibarkoizarra.com)
(Izena emateko azken eguna uztailaren 13a.
Izena ematean aukeratu beharko da
bigarren platera)

19 €

17 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA